

## Kostuen egiturak:

**Kostuak** , enpresak produkzioarako egindako ordainketa guztiak batuta lortzen dira. Sorturiko ondasun eta zerbitzuen produkzioari lotuta dauden gastuak adierazten dute, adibidez, lehengaiak, soldata, energia,....

**Gastua** eta kostua desberdindu behar dira, kostua ekoizpenean erabilitako faktoreen balioa da eta gastua enpresak, oro har, egiten duen despoltsapena da. Esaterako, eskolako mahaiak egiten dituen enpresa batek 10.000 €ko egurra erosten badu, baina, 8.000 €ko balioa soilik erabiltzen badu ekitaldi batean, bere gastuak 10.000 €koak dira baina ekitaldi horretako kostuak 8.000€koak..

Enpresa guztiek arazo garrantzitsu bati aurre egin behar diote: **kostuak**. Ekoizteak kostuak ditu, ondasun edo zerbitzu bat ekoizteko erabilitako faktoreek (lurra, lana eta kapitala) produktu horren kostua osatuko dute. Beraz, ondasun edo zerbitzu bat ekoiztearen kostua kalkulatzeko, hura ekoizteko erabilitako baliabide guztien merkatu balioa batu behar dugu. Ekoizpena handitzen dugun neurrian, kostuak ere aldatu egiten dira, adibidez, oihal gehiago beharko dugu; baina ez da hau gertatzen kostu guztiekin, esaterako, makinaren kostua ez da aldatuko kamiseta gehiago egiteagatik. Horrela bada, kostu finkoak eta kostu aldakorrek desberdindu behar ditugu.

Bi kostu mota daude:

**Kostu finkoak**, ekoizpen maila aldatu arren, igotzen ez diren kostuak dira. Adibidez: lokalaren alokairua, makinak, langile finkoen soldata,...

**Kostu aldakorrek**, ekoizpen maila aldatzen den neurrian aldatzen direnak dira. Adibidez, lehengaiak, energia, aldiko langileen soldata eta abar.

Baina egunen batean konpetentziaren bat aterako balitz, gure produktu eta zerbitzua hobetzen jarraituko genuke, enpresa handituko genuke. Enpresa horren ezaugarriak aztertuko genituzke, gureak potentziazteko adibidez: irudiaren kalitatea hobetu

**KOSTUAK** (Hasiara batean izango ditugunak):

Holograma:

- 50 pantaila x 2.500€ unitate
  - 50 tableta x 150€ unitate
  - 50 webcam x 60€ unitate
  - 8 langile x 2.000€-ko soldata
- gk:151.500€

Aplikazioa:

- 3 Langileak x 2.000€
  - Teknologia: 3.500€
- gk: 9.500€

Lokalaren alokailua: 550€ hilean

Materiala garraiatzeko furgonetak (2): 4.000€ unitate

- Zuzendaritza taldea (4 perstona) x 2.500€-ko soldata

**GUZTIZKO KOSTUAK: 179.550€**